
Burdinolako langileek sua piztu behar dute hauspoarekin, burdinazko barra balantzan pisatu eta mazoarekin burdinari ingudean forma eman. Baina, lana egiteko bidea aurkitu behar dute, nondik joango ote ziren?



Zepa burdin mineralaren hondakina da eta, gaur egun, arkeologoek, haren bidez aurkitzen dituzte burdinaren antzinako ustiategiak.

Burdinolan burdinazko objektu asko egiten ziren erabilera ezberdinetarako: abeltzaintza, nekazaritza, eraikuntza eta etxerako. Hemen haietako batzuk agertzen zaizkizu. Non kokatuko zenituzke?

Zintzarria • Leihoko barra • Igitaia • Iltze plantxa • Ilea mozteko guraizeak • Laia • Harginaren mailua • Ferra • Trebera • Taloak egiteko pala • Golderako nabarra • Estribo aitzurra • Sarraila • Kremailera-laratza

ERAIKUNTZA	ABELTZAINTZA
ETXEKO BIZITZA	NEKAZARITZA

Burdinaren koloreak adierazten zien olagizonei zein tenperaturatara iritsi zen labea. Gorri bizia bazen, "oraindik hotz" zegoen eta ia zuria bazen, forjatzeko prest zegoen.